

*Estuarioetako  
habitatak  
leheneratzen*



LIFE08NAT/E/000055 PROIEKTUA  
EAEko estuarioetan interes komunitarioko  
habitatak leheneratzea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA



Estuarioetako habitatak presio eta mehatxu ugariaren pean daude, eta horien artean landare exotiko inbaditzaile espezieen ugartzea dago. «EAEko estuarioetan interes komunitarioko habitatak leheneratzea» proiektuaren helburu nagusia Urdaibai, Txingudi eta Leako estuarioetako habitat horiek leheneratzea da, *Baccharis halimifolia* landare exotiko espezie inbaditzailea hedatzen ari baita.

Proiektu hori Europako Batzordeak, LIFE-Natura programaren bitartez, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak finantzatu dute. Proiektuaren kudeaketa Ihebek (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) egiten du.

*Proiektu  
esparruak*





Urdaibaiko Padura



### *Urdaibaiko Padura*

Euskal itsasertzean ondoen gordetako estuarioa da; izan ere, ekosistema ugaritasun handia dago bertan eta 1989tik EAEko Biosfera Erreserba bakarra da.

*Baccharis halimifolia* espezieak jotako esparruak 290 hektarea inguruko azalera dauka.



Bidasoako Uhartek



### *Bidasoako Uhartek*

Hainbat eta hainbat hegaztiren migrazioan ezinbesteko gunea den Txingudiko esparruan kokatuak, jatorrizko zingiratako landareek dira, ia erabat hiritartutako ingurua bada ere.

*Baccharis halimifolia* espezieak uharteetako dikeak inbaditu eta 5 hektarea inguru bereganatu ditu.



Learen Estuarioa



### *Learen Estuarioa*

Azalera txikia izan arren, estuario hori da euskal itsasertz osoan gutxien aldatu dena. Paduretan ohikoak diren espezie batzuk ugari daude bertan.

*Baccharis halimifolia* espeziearen inbasioa hasiberria da; gutxi gorabehera 0,5 hektareako azalera hartzen du.



Hiru estuarioak Europako naturgune babestuen Natura 2000 Sarearen barne daude, eta sare horren bidez Europako habitat eta espezie esanguratsuenak babestu nahi dira.

## *Mehatua:*

### *Baccharis halimifolia* espeziaren inbasioa

*Baccharis halimifolia* Ipar Amerikako atlantiar itsasertzean sortutako landare exotiko inbaditzailea da, apaingarri gisa ekarri zena eta Atlantikoko Europako itsasertzean zabaldu dena, Britainiatik hasi eta Asturiaseraino. Proiektuaren helburu diren guneak mehatxupean daude, izan ere:

***Holonizatzaile handia da.*** Landare bakoitzak 1,5 milioi hazi sor ditzake eta oso urrutira hedatzen dira. Gaztea denean, hazkunde-tasa handia dauka eta gazitasunak ez dio kalte handirik egiten, ez eta uholdeek eta aldi baterako lehorteeek ere.

***Espezie transformatzaileen da.*** Lurraren ezaugarri fisikoak eraldatzeko gaitasuna dauka eta aniztasun biologikoari kalte handiak egiten dizkio, ekosistemen dinamika naturala aldatzen baitu, bertako espezieak baztertuta edota beraiekin hibridatuta.

***Batik bat padura altuetako guneetan ezartzen da,*** eta habitat naturalei kalte egiten die, adibidez, ihitoki gazien, lezkadien, segarako belazeen eta baso alubialen gisakoei.

Habitat horien aldaketak ***babestutako hegazti asko eta askori zuzenean eragiten dio,*** esaterako, ur-benarrizari (*Acrocephalus paludicola*), Europa osoan galzorian dagoena, lezkari karratxinari (*Acrocephalus arundinaceus*), txori zezen arruntari (*Botaurus stellaris*), mokoabalari (*Platalea leucorodia*) edo arrano arrantzaleari (*Pandion haliaetus*), beren elikatzeke, atsedean hartzeko eta hazkuntzarako lekuen degradazioa eragiten baitu.





## Proiektuko ekimenak

Arazo horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen LIFE proiektuak aipatutako hiru esparruotatik landare inbaditzailea errotik ateratzeko ekimenak garatzea, publikoa sentsibilizatzea eta emaitzak zabaltzea aurreikusten du. Hauek dira ekimen nagusiak:

- 1** Aipatutako esparru osotik *Baccharis halimifolia* **espeziearen masa zein banako aleak desagerraraztea**; horrek 300 hektarea estuario-habitat inguru leheneratzea eta hobetzea ekarriko du.
- 2** Espezie inbaditzailea desagerrarazitakoan, **bertako espezieen kolonizazio naturala lagunduko da**, kaltetutako esparruetan erein eta landatuz.
- 3** Proiektuaren emaitzen zein erabilitako bideen **eraginkortasunaren jarraipen berezitu egitea**.
- 4** Estuarioetako habitaten **problematikari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea**, herritarrei zuzenduta. Horretarako, besteak beste, liburuxkak argitaratuko dira, proiektuaren esparruetara bisita gidatuak egingo dira eta argazki lehiaketan gisako jarduera ludikoak egingo dira.
- 5** **Lortutako emaitzen zabalkundea**. Horretarako, jardunaldi teknikoak antolatuko dira eta antzeko problematika duten herrialdeetako ordezkariak parte hartuko duten nazioarteko batzorde bat sortuko da.

*Baccharis  
halimifolia,  
espezie  
inbaditzailea*

Proiektuari buruz gehiago jakiteko, bisita ezazu ondoko webgunea:  
[http://www.euskadi.net/life\\_estuarios](http://www.euskadi.net/life_estuarios)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ABERANTZA SAHIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

Donostia kalea, 1  
01010 Gasteiz



Urkixo zumarkalea, 36 - 6°  
48011 BILBO

